

## Amaia Alday Binakako Master Laboral Kutxa Txapelketako finala jokatuko dau

Finalerdiak abenduaren 6an jokatu ziran Derion. Olatz Arrizabalaga eta Gentzane Aldairi nagusitu jakien Amaia Alday eta Oihane Orbegozo 12-22. Finalean, Alday eta Orbegozok Patri Espinar eta Naroa Agirre izango ditue aurkari. Abenduaren 20an, Arrigorriagan jokatuko da finala. Txumuluxuetako Ainhoa Ruiz de Infante finaleko ateetan gelditu zan. **14. orrialdea**



## Jon Andoni Cintado Europako txapeladunorde taekwondon

14. orrialdea

## Kulturaz gainezka dator Gabonaldia

Aurrez aurre edo online, hirurogei jarduera inguru antolatu ditue eskualdeko udalak eta kultura alkarteak.

Jente pilaketarik ez egoteko aforoak murriztuta, eta COVID-19a dala-eta indarrean dagozan neurri guztiak beteta, eskualdeko udalak eta alkarteak, hileotako kultura gosea asetuteko ahalegina egin dabe; batez be, kontzertu, antzerki eta zine eskaintza oparoa programauz. Olentzero, Mari Domingi eta Errege Magoak be egongo dira –modu personalizauago baten– Arratia, Ubide eta Zeberioko umeen ilusinoa biztuteko. **10. eta 11. orrialdeak**



## Kelvion ez ixteko mobilizazioak



Kelvion ez zarratuteko eta Arratiako desindustrializazioaren kontra manifestazioa egin zan Igorren abenduaren 11n. Goizean, herriko beste arlotako langile askok ordubeteko lan-ixtea egin eben Kelvioneko beharginai alkartasuna adierazoteko. Kelvion-ekoak greba mugabakoan dagoz zemendiaren 16tik, enpresek hiru lantoki zarratu gura ditualako, tartean Igorrekoa. **5. orrialdea**

### IGORRE

## Miloe erdi euro gitxiago aurreikusten dauz 2021eko aurrekontuak

Aurten baino ia miloe erdi euro gitxiago kudeatuko ditu 2021ean Igorreko Udalak, zemendiaren 30ean onartutako aurrekontuen arabera. Kontuak EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz onartu ziran.

Oinarrizko zerbitzuak mantenduteko apustua egiten da eta COVID-19agaitiko itxialdiak eta neurri murriztaileak gehien kalte-tuai lagunduteko izango dira diru partidari inportanteenak. Inbersinoetan, auzobide eta espaloi konponketak izango dabe lehentasuna, baita eskolako patioa barriztatuteak be. **5. orrialdea**

### ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Tabernak zabaldu ditue eta Bizkaiko beste herrietara joan ahal da

Urkullu Lehendakariaren azken dekretuak taberna eta jatetxeak zabaltea baimendu dau eta konfinamentu perimetrala herrietatik probintzia izatera aldatu dau. Gabonetako ospakizunetan, 10 personara arte batu daitezkeza be ezartzen dau abenduaren 12an indarrean sartu zan dekretuak. **8. orrialdea**



### DIMA

## Txumuluxueta alkarteak bere 25 urteak ospatuko ditu

Abenduaren 30ean izango da ekitaldia. Herriko alkarte guztiak dagoz konbidautu kulturearen egoerearen gainean hausnarketea egiteko egingo dan mahai-ingurura; jarduerak marko teoriko sendo bat euki dagiezan. Hitzordua arrastiko 19:00etan izango da eskolako kamaran. **16. orrialdea**



# Literatura txokoa

## INVISIBLE

Haur batek dino jada ezin dala ikusezina izan, ikusezin izateko poderea galdu daua. Etxe baten, pulsera asko dituan neska batek, esan eta egin ez dauan guztian pentsetan dau. Beste baten, bederatzi hatz eta erdiko ume batek, liztor sentiduten dan ume ikusezina, oin dala hilabete batzuk begitan hartu eta bere pentsamentu bakarra bihurtu dan umea zelán egongo dan pentsetan dau. Eta azkenik dragoi bat dago, ahal dauan guztia egingo dauana haur ikusezina salbetako.

Modu korapilatsuan hasten dan kontakizuna oso azkar doa forma hartzean eta istorioari bidea egiten, idazkera arin eta oso ondo zaindu baten. Personaia nagusiak lehenengo personan kon-

tetan ditu gertakizunak. Ume zein gazte baten egunerokotasunean gertatzen diran gauzez dihardu, gauza on eta txarrez, emozino eta sentimentuz beterik. Kapitululu laburrak, idazkerak eta gaiak irakurlea sakon harrapatzea eragiten dabe. Holan, haurtzaro zein nerabezarora bidaiatzen dogu eta barneko sentimentu guztiak gogor astintzen deuskuz.

Eloy Morenoren obra parebako hau gogoetarako eginiko eleberrira dogu. Nerabeentzako bereziki egokia bada be, edozein adinetako irakurleak ez ditu hotz ixten. Izan be, bizi doguna bizi dogula, danok sentidu izan gara inoz personaia nagusia sentiduten dan legez. Irakurketa errazeko eleberririk hunkigarri hau barne-barneraino

sartzean da, ikusezina dana be ikusgarri eginaz.

**Amaia Trejo Aldekoa**



**Eloy Moreno**

**Invisible**

**Editorial Nube De Tinta, 2018**

**304 orrialde**

TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**  
**Abenduaren 14tik 20ra**

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Abenduaren 21tik 27ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Abenduaren 28tik urtailaren 3ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 94 433 33 33

**Areatzako Notarioria**

94 673 92 26

### Bizkaibus 94 612 55 55

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzeako Ugauraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugautik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugautik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermibarri-Arriorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Ermibarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu,

Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia

(Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga

(Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.



**zertu**  
kultur elkartea

### Babesleak:



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### 19 urtetan kasurik ez

Imajinetan dozue zelangoa izango litzatekeen zuen bizitza ez baleutsue entzungo? Zelangoa izango zan, behin eta barriz, zuen berbea ez balitz kontuan hartuko? Zelan egongo zinien egon gura ez dozuen personeagaz egotera behartuak izan ezker? Ba hau da Miriam Ruiz Salmerón-eri gertatu egin jakona bere bizitza osoan. 2020ko zemendiaren 23ko El Publiko aldizkarian alkarriketa baten bere esperientzia latza azaltzen eban. Merezidu dau irakurtea, zeren eta argi eta garbi ikusten da aitaren eskubideak umeen eskubideen gainetik sarritan ipinten dirala.

Hilabete bi eukazanean banandu ziran gurasoak eta aita, amari tratatu txarrak emoteagaitik kondenau eben. Aita kondemnatua izanda be, ikustera behartzen eben umeak, eta 9 eta 10 urte eukiezanean hareri emon eutsien kusto-

dia. Argudio zan ustezko gurasoen alienazino sindromea.

Berak azaltzen dau, bildur handia emoten eutsala aitak eta gaur egun be holan dala. Aitak bera erabili dauala amaren kontra joateko bizitza osoan eta sistema judizialak bera eta ama babestu beharrean, kalte psikologiko eta ekonomiko ikaragarriak eragin deutsezala. Izan be, gobernuak bere ama hiru bider indultau dau kartzelara ez joateko, bere alabari entzutearren, babestearren eta ez behartzearren tratatu txarregaitik kondemnatua izan zan aita ikustera. Momentu honetan, 19 urte izanda be, bere ama kartzelara sartu daiteke, ez badabe barriz indultetan. Ez ete dago legea txarto?

Zorritzarrez, holangorik biziten dauan ume bakarra ez da Miriam. Izan be, Arratian egon badagoz holangoak sufriduten dabezana umeak. Entzun daiguzan, sinistu daiguzan eta babestu daiguzan!

PILI ALVAREZ

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Txoten



Txoten esaten jako amasestuak eta amasearen etenak eraginda, glotisean eta diafragman eukiten dogun espasmo antzekoari (txoténa, ahoskatuta). Ubiden txotin aldakia erabilten da. Batuan, barriz, zotin da. Txotena, ezustean gertatuten dan amasgora zoli eta deserosoa izaten da. Eta kentzeako erremedioen artean, zabalaren dabilena adibide honetan doa: "Txotena kentzeako era asko dagoz, baina sustua emotea da onena".

## ERETXIA

### Txilen bizitea arpegiko begi bat kostetan da

Testu honen izenburua, 2019ko urri bigarrenaren 18tik aurrera kaleak hartu ebezan karteletatik hartu dot. Egun hori Txileko historia eta memorian mugarria da, herrialde osoan mobilizazio eta gizarte ekintza prozesu bateri hasikerea emon eutsalako, eta horrek eragindakoa oindino sortzean dagoalako. Miloeka persona urten ziran kalera manifestazioetan, eskubideak exijiduten eta ekidade ekonomiko eta politiko falta ugari eta mota guztietako abusuen aurrean desadostasuna adierazoten. Gobernuak, entzungor, protestak kriminalizatu egin ebezan eta errepresioa gogortu. Honek, haserrea handiagotu eban eta greba gehiago, lan-ixteak, manifestazio baketsuak eta erresistentzia eta salaketa beste modu batzuk ekarri ebezan.

Testuinguru nahasi honetako irudi batzuk, —tanke milatarrak kaleetan, gazteak metro geralekuren bat hartzean edo Las Tesis taldearen oin ikoniko bihurtu dan *Bortxatzaile bat zure bidean* performance-ak, esate baterako— munduari buelta emon eutsien. Momentu historikoa zan, eta, pentsau neban inozo, mundu guztiak dauka horren barri. Zelan ez jakin gertatutakoa? Baina konturatu naz mundu guztiak ez dakiala zer gertatu zan eta zer dabilen gertatzen. Akaso, "istiluren bat" gertatu zala bai, baina asko gehiagorik ez. Horregaitik, herritarrek "eztanda sozial" deitu eutsenaren gaineko zertzelada batzuk konpartiduten dodaz hemen.

Eztanda biztu eban "sugarra", bigarren hezkuntzako ikasleak protestak hasi ebenean sortu zan; metroko biajearen kostuaren igoerearen kontrako protestak ziran: tomiketea saltau eben biajea ez pagetako edo nasetan jesarri ziran instalazioak hartuz. Hortik aurrera, —eta gobernuaren erantzun bortitzakaitik— ikasleak alkatasuna adierazoteko eta euren eskaera propioak, pensinodunak, herri indigenak, gizarte erakundeak, talde politikoak, feministak, giza eskubideen aldeko ekintzaileak, ingurumenekoak eta animalistak, beste batzuen artean, gehitu ziran protestetara. Hile hasieran hainbat protesta ekintza egon ziran produktu eta zerbitzu batzuen prezio igoereagaitik, baina gobernuak, gixtietsi ebezan protestok eta modu iraingarri eta ardurabakoan erantzun eban. Esate baterako, orduko Ogasun ministroak, 2019ko urri lehenengoaren KPIaren aldaketaz berba egiterakoan, "erromantikoen-tzako albiste on bat" egoala esan eban, "lorearen prezioak behera egin dau"; edo metroa karutu zanean, orduko Ekonomia ministroak herri-



LUZ MACEIRA OCHOA  
Memoria Historikoaren ikerlarria

tarrai proponidu eutsen "ohetik goizago altzetea" eta holan metroaren dirua aurrezte; izan be, puntako orduan 30 peso karutu zan eta holan "goiz altzetan danak laguntza izango dau" esan eban. Bihozbako komentario honek, protesta masiboak eragin ebezan eta beste gai batzuetan be, gobernuak erakutsitako tenturik ezaren ondorio izan ziran. Protestak "ez dira 30 peso, 30 urte dira" lelopean egin ziran, desbardintasun ikaragarri handia sortu dabezana egiturazko politikai erreferentzia eginez.

Poliziak eta indar armatuak ez ziran faltau herritarren aldarri eta ekintzai erantzuteko. Hilabeteetan zehar istilu gogorak egon ziran, "lehenengo leroan" —gizarte burrukan inplikautako personak— aurre egin eutseen tanke militarrai, ura botaten daben tankeak, bonba negar eragileak eta Estatuak ezarritako beste baliabide poderetsuak, barrikadak egindako ezkutuak, harriakaz eta etxean egindako lehergailuakaz. Suteak, barrikadak eta suntsipen beste modu batzuk, leku batzuetan, egunerokotasunaren parte bihurtu ziran hainbat astetan. Erasoak egon ziran karabineru eta komisaldegien kontra, lapurretak, eta ondasun publiko eta pribaduak erre ziran. Aginduak eta ekintza bortitzak egon ziran gizartearen zati txiki baten aldetik; egintza eta ekintzaile desbardinak sortutako indarkeria edo indarkeriak —pluralean— gogortu egin ziran. Diskursoak polarizatu egin ziran. Sektore batzuetan, aldarrikapen justu eta indarkeria polizialaren biktimen aurrean, jentek sorpresaz eta enpatia gehiago edo gixtiagogaz erreakzionau eban. Talde batzuk, Santiagoko zenbait auzo herrikoitako biztanleak edo Araucaniako maputxe herria, barbarako, poztu egin ziran, euren-tzako eguneroko esperientzia zana (errepresioa, kontrola, kriminalizazioa eta abar) albiste bihurtu zalako eta amorru eta gaitzespen kolektiboak eragin ebalako. Milaka personak kudeatu eta parte hartu eben herritar kabiloetan, gizarte ondoezaren, krisiaren kausen eta antzeko gaien gainean eztabaidatzeko. Sinpatia, enpatia, antipatia, bildurra, abrozimentua, amorrua eta itxaropena be egon ziran.

Lehenengo hilabeteak bizi-bizirik izan ziran. Giza Eskubideen Institutu Nazionalak argitaratutako txosten baten arabera, 2019ko urri bigarrenaren 18tik 2020ko martiaren 18ra arte, giza eskubideen urraketan 3.203 biktima egon ziran. Institu-

tuak 2.520 kereila aurkeztu ebezan Karabineru, Armada eta Ikerketa Poliziaren kontra. Txostenean jasotako urraketak, hilketak, mota guztietako zauriak, torturak, lege kontrako egoerak eta abusuak dira, eta kezka handia sortzean dabezana "begi traumatismoak, istiluen kontra erabilitako eskopeten abusa eta sexu-konotazioa daukien tratatu anker, krudel eta iraingarriak". 163 personak sufridu dabe begi traumatismoa; euretako 32k ikusmena galdu dabe betiko eta 21ek begi-globoa galdu dabe. Eta eurak dira —begian partzea dabela— neurri handi baten, herriaren duintasuna eta adorea sinbolizatu dabenak, eta agirian itxi gobernuaren erantzunaren zentzubakokeria eta justiziarik eza.

Aitatutako txostenak ez dau martitik gaur egunera arteko biktimen gaineko informaziorik emoten. COVID-19aren pandemiak eragina euki eban gizarte mobilizazioetan, baina ez ebezan guztiz gelditu. Konfinamentu zorrotz eta itxuraz ekintza bako egun batzuen ostean, hemen eta han manifestazioak berbitu egin ziran eta 2020 urtean zehar jarraitu egin dabe. Izan be, pandemiak, eta honen kudeaketeak, ordurako gizarte eskakizun ziran arazoak larritu egin ditu; tartean, osasunerako sarbide desbardina, babes ekonomiko eta gizarte irabazien faltea, langabezia, pobrezia eta abar. Eta honek indartu eban aldaketaren preminaren idea.

Pasa dan urri bigarrenaren, eztanda sozialaren urteurrena bete zan, eta jente askok eta askok, "osasun" murrizketak eta beste kontrol forma batzuk bete barik, burruka urtea ospatu eben. Hile horren 25ean plebiszitua egin zan, konstituzino barrira egiteko aldaketak onartzeko edo ez (onartu egin zan) eta horretarako egin beharreko ibilbidearen gainekoa.

Plebiszitua akordio politiko baten ondorioa izan zan, ia garapen eremu guztietan eragina daukien eta itun sozial barri bat eskatzen daben eskaera sozial ugariak erantzuteko sortutakoa. Bere sasoiaren, plebisziaren ideak desadostasuna eragin eban mobilizazioetan murgilduta egozan talde eta alderdi politikoen artean; baina behin hori onartu eta programatu, gizarte zibilaren zati handi batek eta alderdi politikoak aurrera aterateko lanari ekin eutsien. Gizartearen arlo garrantzitsu batentzat, konstituzino barrira funtsezko aukerea da txiletar gizartearen oinarri barri eta hobeak eragiteko. Ekidaderik eza eta pribilegioaren mekanismo nagusiak desmontatu ezin izateko balio izan dauan diktadura betean sortutako esparru juridikoa desegitea da-eta. Eta beste gauza batzuen artean, Konstituzinoak Estatuaren subsidiarotasun ekonomiko eta oinarriko zerbitzuen homiduran daukan parte-hartze marjinala finkatzen ditu. Gutun barri honeguz, ura, osasuna eta hezkuntza arpegiko begi bat ez kostetea espero da.

**\*Erredakzioan itzulia**

## LUMATUTEN

SARA GUTIERREZ  
EGILIOREz da gatzik onik  
ez dakarrenik

Azken urteotan, zemen-diaren 25ean andren kontrako biolentzia matxista salatuteko, Arratia mailan antolatutuen diran konzentrazioak Igorren egin izan dira, baina aurten COVID-19aren ondorioz ezarritako murrizketak dirala eta, Arratiako mobimentu feministeak konzentrazioak herriz herri egiteko ebatzia hartu dau. Ordu berean, herri guztietako plazaten, mobimentu feministeak adostutako adierazpen bera irakurri da.

Eta esaten dan moduan, "ez da gatzik, onik ez dakarrenik". Aurten, inoz baino jente gehiago alkartu da biolentzia matxista salatuteko.

Nire ustez errazoi desbardinak egon dira. Alde batetik, norberaren herrian izateak parte hartzea erraztuten dau; bestetik, bizi dogun egoera honetan, bildurra gaintuz, espazioak eta burrukak partekatze

gogoia biztu egin dala iruditzen jata. Baina batez be, eta zorionez, jendartea gero eta sensibilizatuago dagoalako andren kontrako biolentziaren aurrean, hori bera baita androk jasaten dogun desparekotasunaren adierazlerik garratzena.

Hau holan, nire hausnarketea hau da, askotan, konzentrazioak edo manifestazioak deitzean diranean, jente gehiago batzeako helburuagaz eta nahiagaz, herri handi edota urietan egitea planteau izan dala, baina bizi dogun egoera barri honek barriro be herriz herriz egiteko aukerea opatu deusku, egoereak derrigortuta eta parte hartze zenbakien "bildurra" gaintuz. Eta nire ustez, eragin handiagoa dauka, bai maila politikoan, baita maila sozialean Z-25eko konzentrazioak (edo bestelako errebindikazioak) Arratiako herri guztietan egiten jarraitzea.

## ZERTZEAN



LEIRE AGINAGA

Goizeko 6rak eta alarmak jotzarekin batera neguko haize freskoa sartu zaio izara artera. Galtzerdiak kendu ere egin gabe, izan ere, neguan galtzerdiekin lo egiten da, libidoa pixkatxo bat jaitsiz eta oinak ez anputatzea helburu izanik, ohetik jaiki da.

Oraindik begiak erdi itxita egin du komunera, ispiluari begirada desafiatailea bota eta kristal puskari so gelditu da, bere islada lotsatiari. Normalean ez zaio ispiluetan begiratzea gustatzen. Nahiago izaten du bere identitatea besteen usteekin zizkatzea, bere uste eta identitate nahiak beregan erreflejatzen ez direla onartzea baino. Noizbait bere buruari ezarri zizkion motxila eta kateek izugarizko zarata egin dute lurra jotzean. Hauek zabaldu eta apurtzeko unea da.

Hasierako begirada mesfidatia alde batera utzita autoerradiografia bat egitera behartu du bere burua.

Aurpegitik hasi da, bekainak, begiak, belarriak. Behin eta berriz kentzen saiatu arren oraindik ber-

tan dirauten sudurreko puntu beltzak. Horrenbeste zarata, irribarre, elkarrizketa serio eta muxutan erabili duen ahoa. Galtzeko ezer ez balu bezala edozeri eta edonori su emateko prest zituen eskuak. Jada ez dauzka horretarako prest, kemena desagertu egin da, edo agian espoliozioa izan da kausa.

Beherantz jarraitu du, nahigabe (edo ez). Urteetan saihesten saiatu den edertasun hegemonikoaren arau makabroetan bete-betean sartzen dela ikustean, hotzikara eta amorrutik betetako segundak igaro ditu. Ispilua lausotu den arte. Gogora dakartza igurtzi, sentitu eta aldatu dituen larru guzti horien esentziak. Batzuk barnean iltzaturik gelditu zaizkiola onartzean, lotsa eta beldurraren nahasketa autodestruktiboak *coctel molotov* baten lez ihes egin dio, ihesbide begiak izanik.

"Album bat egin dizut zor nizekizun abestiek, pasatu bila nahi duzunean edota nitaz oroitzean. Ez ahaztu galtzerdiak, aurtengoa hotza izango da eta".

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

Euskaraldia amaituta, euskeraz bizi gura dogu urteko 365 egunetan. Euskerea ei da gure territorio libre bakarra eta askatasuna inoz baino urriago dan honetan, defendidu egingo dogu, egunero eta momentu guztietan euskerea erabiliz. Askatasuna, eskubideak lez, erabili ezean galdu egiten dalako.

Gehiago, gehiagotan eta gehiagogaz egingo dogu euskeraz. Whats-Appez, sare sozialean, telefonoz eta jenteagaz aurrez aurre gagozan momentu preziduetan. Gure territorio libre bakarra, bakarra ez izateko burrukan.

Euskaraldiaren argazki ugari heldu jakuz. Jentea be agertzen zan bertan, baina ahoa estalita eukien ia danak eta aldarrikapena bera bakarrik aukeratu dogu honako. Hizkuntza baten aldeko aldarrian, berba libre egitea aldarrikatzeko, ez dau ondo emoten-eta.



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscsl.com](mailto:gorosti@gorostiscsl.com)

**agoa**  
hagin klinika  
Marina Uriagotia Aldekoa  
Odonatologia  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zerbaita 101  
R.P.S. 21/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPERERA  
Elizkolede, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)  
Tel. 94 621 64 62 - 908 864 018

**Troka**  
Lanbidean Agira II

## Gea-Kelvioneko beharginak deitutako lan-ixteak jarraipen zabala izan eban

Gea-Kelvioneko beharginen burrukearen eta Arratiako etorkizunaren alde, abenduaren 11n ordubeteko lan-ixtea egin eban Igorren industriak, zerbitzu publikoak eta saltokiak.



### Erredakzioa

Arrastian manifestazioan be agertu eutsen babesera herritarrek "Gea-Kelvion ez itxi Arratia bizirik" inoan pankarteagaz.

Beharginak greba mugabakoan dagoz zemendiatik, enpresearen zuzendaritzak hiru lantoki itxi

gura dauzalako, tartean Igorrekoa, eta 147 behargin kaleratu guztira.

Kelvioneko beharginak, Arratiak sufriduten dauan desindustrializazioa salatu eban. Izan be, atzenengo urteotan Arratian, Incoesa, Alfus, Tarabusi, Negarra eta Araluce zarratu ditue, eta ez dagozala prest Kelvionegaz "gau-

za bera egiten ixteko" adierazo eban.

Igorreko Udalak Kelvioneko langile eta familiei babesera emon eta herritarrei barikurako antolatatu ziran lan-ixte eta manifestaziorako deia luzatu eutsen. Udala, kiroldegia eta Kultur Etxea itxita egon ziran ordubetez

abenduaren 11n.

### Enpresea erosteko proposamena

Zuzendaritzak beharginai enpresea erosteko proposamena egin eutsen, "proposamena aztertutako astirik emon barik". Behar-

ginak proposamena aztertutako denporea eskatu eutsien zuzendaritzeari, baina enpresek proposamena erretiratu ebalu salatu eban beharginak.

Eusko Jaurlaritzako Industria Saitetik konpromisorik jaso ez izana be salatu eban.



## COVID-19ak baldintzatutako 2021eko aurrekontuak onartu ditue Igorren

Aurten baino ia miloe erdi euro gitxiago kudeatuko ditu 2021ean Igorreko Udalak, zemendiaren 30ean onartutako aurrekontuen arabera. Kontuak EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz onartu ziran.

### Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak Udalkutxaren bitartez banandutakoa da Igorrek daukan finantziario iturri handiena eta COVID-19a dala eta hartutako neurrien ondorioz, Aldundiak diru gitxiago dauka herrien artean bananduteko. "Bizi dogun egoerak ekarri dau igazko aurrekontutik %10 bajatuta" dino Illart Gumuzio Igorreko alkateak.

### Zerbitzuak mantentzen eta kalitateak lagundu

Hori dala-eta, oinarriko zerbitzuak mantentzeko apustua

egin dabe, COVID-19ak oinarriko zerbitzuetan gastu estrak ekarri arren, garbiketa gastuetan, barbarako. Eta itxialdiak eta neurri murriztaileak gehien kaltetuak lagunduteko izango dira diru partidarik inportanteenak. "Merkatari, enpresa txiki eta ostalariei lagunduteko 40.000 euro ipini doguz partida baten eta gero igongo dogu likidazioa datorrenean. Errota Fundazioari 2020an bideratu geuntsana baino %20 gehiago bideratuko jako eta asmoa da gerora be gehiago igotea.

AMERi Bonodenda kanpaina egiteko, urte hasieran onartutako kreditua baino %32 gehia-

go bideratuko jako eta aurtengo moduan, gitxienez beste kanpaina bat egitea da asmoa. Elikagi Bankuari igaz urte hasieran emon jakona baino %172 gehiago bideratuko jako" dino Igorreko alkateak.

### Eskolako patioa, bideak eta Industrialdea

Aurrekontu honeetan ez dago apenas dirurik inbersinoetarako, baina urteko likidazioaren ostean, abiatutako proiektuak aurrera eramateko dirua egongo dala uste dau Gumuzio eta auzobideen eta espaloien konponketak lehentasuna eukiko dabela dino.

"2020aren hasieran prozesu parte-hartzaile bat egin genduan. Egoera txarrean dagoan herriko espaloie eta bideak, ipini genduzan erakusketak gelan, jentek proiektua osotutako. Erakusketak zezeilan amaitu genduan eta martian... badakizue zer gertatu zan. Oin gabiz proiektu hori egiten eta asmoa da urte amaiera eta datorren urtearen bitartean hor jasotakoak aurrera eratea". Martian be onartu zan eskolako patioa barrizatzea eta 2021eko udan egiteko asmoa dago.

Industrialdea barrizuteko proiektua be badago. Finantziario Bizkaiko Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik etorri beharko litzateke Igorrerako "estrategikoa" dan proiektu honetarako. Finantziario iturriak landuten dabizala dino alkateak. "Ikusiko da urtea zelan doan. Badaukaguz hor pendiente beste proiektu batzuk be, baina egia da ikusi behar dala COVID-19ak ze bilakaera daukan eta likidaziotik zenbat diru daukagun. Horrek markauko dau 2021 urtea".



### EAJ-PNVk kontrako botoa

EAJ-PNVk ezezko botoa emoteko errazietako bat izan zan, euren ustez, gastu partidak putzitu egiten dirala. Izan be, "azken urteetako esperientziak, miloe baten gorako gerakinak azken urte guztietan, partidak gainbaloratuta dagozala frogatzen dau". Enplegua sustatzeko jarduerak eta dirulaguntzak, autonomoentzako eta abar eta Errota Fundaziorako dirulaguntzak handitzea be proposatu eban jeltzaleak. Eta inbersinoai jagokienean, "2020 osoan eta aurreko ekitaldietan izandako jarduerarik eza, inaktibitatea" salatu eban.

## ARRATIA

## Espainiako banderearen pintaketak agertu dira hainbat herritan

### Erredakzioa

Abenduaren 6an, Arantzazu, Areatza, Artea, Igorre eta Zeanuriko hainbat lekutan Espainiako banderak agertu ziran, Arteko udaletxean edo Arantzazuko autobus geralekuan, berbarako. Berba edo esaldirik ez zan egon, ezta sinadurarik be.

Pintaketok, erantzuna jaso eben hurrengo egunetan, gainean egindako beste pintaketen bitartez. "Konstituzioa=Errepresioa", "Erregimena sutara" eta "Badekozue zer ospatu? Guk ez! Independentzia" izan ziran gainean idatzitako lelo batzuk. Arantzazun, pintaketez gainera, pegatinak ipi-



niz be erantzun eben; Guardia Zibilak alde egiteko eta presoena eta euskerearen aldeko pegatinak ipinita, hain zuzen be.

## LEMOA

## Lau otzara zozketatuko ditu guraso alkarteak Gabonetan

### Erredakzioa

Igazko ekimena arrakastatsua zala ikusita eta herritarrai ilusinoa biztu eta merkataritza bultzatzeko balakoa dala eretxita, Lemoako guraso alkarteak Gabonetako lau otzara zozketatuko ditu. Boletoak herriko hainbat dendatan eta eskolan eguaztenetan 16:30ean erosi daitezke euro bateko prezioan. Zozketea abenduaren 24an izango da.

Otzarak osotutako produktuak dendariak emon deutseez alkartekoai. "Tabernetan gosariak, menuak... farmazietan, kremak, gozokiak, hestekiak, masajea, pastak,

garbitzeko produktuak, ulerako laka eta langostinoak arraindegian, emon deuskuez beste produktu batzuk batera" azaldu deusie BEGITURI guraso alkartekoak. Produktu honeekaz, igaz otzara bi egin ebezan, eta aurten lau otzara egiteko adina batu dabe.



## IGORRE

## IGORRE

## Umeen olgetako eskubidea aldarrikatuz antolatu ditue urte amaierako ekintzak

### Erredakzioa

Abenduaren 11n hasita eta hilea amaitu arte, Zaztaparrak Asti Taldeak, jolas librean oinarritutako ekintzak gidatuko ditu 3 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Izan be, pandemiaren eragina ikusita, inoz baino gehiago aldarrikatu eta defendidu gura dabez umeen olgetarako eskubidea eta premia.

Eskubide hori bermatzeko, ludotekako hezitzaileak dinamizazio lanetan ibiliko dira abenduaren 11tik 30era arte. "Hilabetea egun

eta txandetan banandu dogu. Egun bakotzak txanda bi eukiko dauz eta edadeari jagokon talde zarratu batekoak joango dira txanda bakar batera" azaldu deusie BEGITURI Zaztaparrak taldetik.

Taldeak edadearen arabera egin dira eta aforoari jagokonez, hiru urtekoen taldean 10 ume da aforoa eta beste taldeetan 12 ume txanda bakotxeko. Edade guztietako umeak erabili beharko dabe maskarea.

**Jolas librea eta espazio zabalak**  
Jolas librea izango dabe ildo na-

gusia urte amaierako ekintzok. Txikerrenak ludotekan batuko dira, eta gainontzekoen bilgunea jantzagela izango da. "Bertan egingo doguz harrera korroak eta danon artean, asanbladearen bidez, saioaren nondik norakoak adostuko doguz. Jarduerak egiteko kalearen erabilereak lehentasuna eukiko dau" dinoe Zaztaparrak. Izan be, pandemiak erakutsi dau natura eta aire zabalak dala espaziorik seguruena dala. Horregaitik, "herriko espazioak hartzea da asmoa".

## Enpresa baten ostuten egoala atxilotu eben persona bat

### Erredakzioa

Ertzainak, abenduaren 6an, 50 urteko andra bat atxilotu eben Igorren, bertako enpresa baten metal lingoteak lapurtzen harrapatu ostean.

Arrastiko zazpi eta erdiak aldera izan zan. Ertzaintzak jakitera emondakoaren arabera, herritarren segurtasunerako patruila bat Igorreko San Juan auzoan dagoan enpresa batera hurreratu zan, persona batek ohartu arazo ondoren barruan hainbat persona ostuten egon eitekezala. Enpresara heldu ziranean, agenteak furgoneta bat ikusi eben aurrean aparkauta, eta barruan andra bat telefonoz berbetan eta jagoten. Agenteak ikusitakoan, hainbat

persona urten ziran pabiloitik galapan, eta ertzainak begien bistatik galdu ebezan.

Susmagarria identifikatu eta polizia-aurrekari ugari eukazala jakin eben. Pabiloia ikuskatu ebenean, agenteak ikusi eben atek behartuta egozala, eta, 800 metal-lingote topau ebezen pilatuta, ustez ostutuko asmoz.

Hori dala eta, ertzainak atxilotu egin eben 50 urteko andrea, indarra erabiliz lapurreta egitea leporatuta, eta polizia-egoitzara eroan eben agintari judizialaren esku itxi aurretik beharrezko izapideak egitera.

Zabalik dago ikerketea, iges egin eben gainerako inplikaduen identidadea jakin ahal izateko.



IGORRE

## Espainiako Gobernuak Iruñe Costumerori egindako kaltea konponduten lagunduteko borondatea agertu dau

### Erredakzioa

Maria Victoria Rosell, Genero Indarkeriaren aurkako Espainiako Gobernuko ordezkariagaz batu zan Iruñe Costumero abenduaren 11n Madrilén. Izan be, Nazino Batuetak Espainiari ustez GASa erabilita Iruñe Costumerori alabea kendu izanagaitik atezinoia emon ostean, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuko ordezkariak Costumeroren testigantzea entzun gura izan eban. Genero Indarkeriaren kontrako Gobernu Ordezkariak, "kezka handia" eta "egindako kaltea konponduten lagunduteko borondatea" adierazo eutsan Costumerori eta Rosellek, bilerearen ostean, zera publikau eban Twitterren: "Entzun eta irakurri dodanak eragin deustan zirrareagaz oindino, berretsi egiten dot Guraso Alienazio Syndrome faltsua (SAP) andra eta umeen kontrako indarkeria dala".

Umeak eta amak kalte psiko-

logikoak sufriduten dagozala jakinarazoten dau Nazino Batuetako erelatoreak publikautako gutunak.

### Kautela-neurrien epaiketea amaitu barik

Hiru bider atzeratu ondoren, prisazko kautela neurriak ebazteko epaiketa zibila hasi zan abenduaren 3an. Bilboko Epaitetikologo eta psikiatrea ez ziran agertu euren txostena berresteko eta abenduaren 18ra arte etxon beharko da Costumeroren alabea amagaz egotea ebatzi ahal dauan epaiketea amaituteko.

2019ko urri lehenengoan onartu ebazan epaileak prisazko kautela neurriak. Orokorrean prisazko neurriak hilabete edo hile biren buruan ebazten badira be, kasu honetan urtebete eta lau hilabete luzatu da kontua. Izan be hirutan atzeratu behar izan da epaiketea, bezperetan BFAk txosten barriak sartzean ebazalako.

ARRATIA

## Gorbeialde Irratiak emitiduteari itxi deutso

### Erredakzioa

Hamahiru urte pasatxo, 107.5 FM frekuentzian Arratiako eskualdeko informazioa Arratiako euskeran emoten ibili ostean, Gorbeialde Irratiak emitiduteari itxi eutsan urrietan. Bere saiorik ezagunena zuzeneko Txitean-pitean magazina zan.

Gorbeialde Irratia 2007ko urtaillean sortu zan eta Igorreko Industrialdean egoan. Eneko Iza kazetari igorretarrak egin dau behar bertan sortu zanetik zarratu dan arte. "Oindino ez daukat guztiz baztertuta bertara bueltan joatea. Egungo egoeran nok daki bihar non egongo garan" azaldu eutsan BEGITURI.

2007ko maiatzean Unai Santos lemoaztarra hasi zan beharrean bertan eta ordubeteko saioa bi ordutakoa izatera pasau zan. Santosek 2010ean itxi eutsan Gorbeialde Irratiako kazetari lanari eta Izak bakarrik jarraitu eban, baina saioa ordu bikoa izaten mantentzen zan. Gaurkotasanari lotutako alkarriketak nabarmendu ziran. Beste programa batzuk entzuleen interesa euki izan ebenak, Arratiako Institutuko ikasleak egindako Ikasleen berbea, Liburuen txokoa edo Athleticean tertulia saioa izan ziran.

2020ko urtaillean, Onda Vasakako Xabier Lapitzek gidatutako *Euskadi hoy* saioa hasi zan eguneroko programazioa zabaltzen.

AREATZA

## Areatzako komertzioetan erostea bultzatzeko bonu kanpaina abian da

Orburu Merkatarien Elkarteak eta Udalak Bonodenda kanpaina antolatu dabe.

### Erredakzioa

Abenduaren 11n hasi zan eta salmentara ateratako 400 bonuak amaitu arte izango da. Udalak 2.000 euro ipini ditu kanpaina honetarako. Holan, herriko dendetan egindako erosketak %20 merkeago izango dira eroslearentzat.

Bonuak 20 eurotan erosteko aukerea egongo da estankotan, eta 25 eurogaitik trukatu ahal izango dira Bonodenda saltokietan.

Aurkeztutako NAN bakoetako gehienez hiru bonu erosi ahal izango dira, beti be 16 urtetik gora euki

ezkero. Bonu bakoetara behin bakarrik erabili ahal da hurrengo baldintzakaz: ez da dirurik bueltauko eta ordaindu beharreko kopurua 25 euro baino gitxiagokoa bada

be, debekatuta egongo da bonuen truke dirua jasotea, baina bonuak pilatu daitezke. Bonuak erosi eta segiduan gastetako aukerea emoten dau Bonodendak.



Bonodenda kanpaineagaz 10.000 € gastauko dira komertzioetan.

baserrigintza

ERAIKI DAIGUN ALKARREGAZ 2021 EDER BAT

Igorreko Industrialdea E2 - 48140 - IGORRE | 94 673 68 29 - 652 774 052  
sunaeraiketak@gmail.com | www.baserrigintza.com

★ BEER & EDARIAK  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24  
Arkaitz 677 46 40 91  
Galdar 666 58 20 06  
Pozuetu poligonoa, 10 IEMOA • beerredariak@gmail.com

## ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Taberna eta jatetxeak zabalik

## Erredakzioa

Abenduaren 12an, ostalaritza atekak zabaldu ebezan barriro. Izan be, abenduaren 10eko Lehendakariaren Dekretuak COVID-19ari aurre egiteko neurriak arindu egin ditu Gabonai begira; batez be, ostalaritzeari eta joan-etorriari jagokienean.

Dekretuak ezartzen dau tabernak eta jatetxeak, 06:00retatik 20:00ak arte zabaldu ahal izango dabela, aurreko 14 egunetan, 100.000 biztanleko 500 positibo baino gutxiago izan ezker. 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan, tabernak eta jatetxeak zabaldu ahal izango dabe indize horretatik gora eginda be, osasun autoridadeak herriko egoera latza dala

jo, eta kontrako agindua emoten ez badabe. Taberna barruan ezin da barran konsumidu, mahaian jesarrita konsumidu behar da eta barruan aforoa erdikoa da. Terrazetan barriz, aforoa osoa da.

Ubide, Zeberio eta Arratiako herri guztiak bost mila biztanle baino gutxiago daukie eta abenduaren 12an guztiak eukien ostalaritza zabalduko baimena. Kezkagarria zan ha-ta guzti be, Zeberioen kasua. Izan be, Eusebio Aldekoa zaharretxean agerrialdia egon da eta dekretua publikau aurretik, 27 kasu egoazan, 100.000 biztanleko 2.535eko tasea izanik. Abenduaren 13an barriz, egoera normalduta egoala eta ez egoala positiborik azaldu eutsien BEGITURI udal iturriak.

## Probintzia barruko joan-etorriak baimenduta

Mobilidade murrizketak be arindu ziran abenduaren 12an, konfinamentu perimetrala herritik probintziara pasauz; hau da, herritik urten ahal izango da, beti be Bizkaiko beste herri batera joateko. 23tik aurrera oster, EAE barruan mobidu ahal izango da. Abenduaren 23tik 26ra eta 30etik urtailaren 2ra, EAETik kanpoko mobikortasuna baimenduta dago, familia arteko topaketetara joateko. Egiaztagiria bete behar da, poliziak eskatu ezker, erakusteko.

Gabon eta Urtezahar gauetan etxeratze-agindua 01:30era arte atzeratzen da eta 24, 25 eta 31ko ospakizunetan 10 persona



arte batu ahal izango dira.

Dekretu barriak aukerea emoten dau 6 personako taldeetan kirol federako entrenamentuak egiteko, gehienez %30eko okupazioa daukien aldagelak erabilteko eta dutak banaka erabilteko.

## Osasun langileak mobilizazioetan

Abenduaren 10ean, Satse, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuak mobilizazioai helduko deutseela barriro jakinarazo eben.

Abenduaren 16tik aurrera eguazterero, eta urtailetik aurrera eguenero, protesta ekintzak egingo ditue. Urtailearen 28an grebara deitu dabe. Izan be, sindikatuen arabera, Osasun Sailak ez dauka "konponbideak bilatzeko ezelango asmonik, nahiz eta osasun publikoan osasun estruktural larriak eta gabeziak egon" eta COVID-19aren lehenengo olatutik bederlatzi hilabete pasau diranean "beharginak esplotatzea da pandemiari aurre egiteko proposatu daben bakarra".

## ARRATIA

## Haurreskolak Partzuergoko beharginak burrukan

## Erredakzioa

Abenduaren 10ean, greba eta konzentrazioa egin eben Haurreskolak Partzuergoko langileak, Bizkaiko sei herritan, tartean Igorren, benetako negoziatzina eskatuteko. LAB, Steilas eta ELA sindikatuak deitu eben grebara. Sindikatuon datuen arabera, jarraipena %73koa izan zan. Benetako negoziatzina egon ezean, abenduaren 16an be greba egingo dabe Partzuergoko beharginak. Indarrean dagozan lan hitzarmena eta akordioak ez dirala beteten salatu eta ordezkapenak betetea, lan hitzarmen barriaren negoziatzina abiatzea eta irakaskuntza pu-

blikoan Osakidetzak egiten dauan COVID-19arengaitik norbera babesteko ekipamentuen horniketan be Haurreskolak Partzuergo sartzeta eskatu eben. Gainera, Eusko Jauriritzak, zentro konzentratuetako 0-3 zikloa diruz lagunduko dauala eta Haurreskolak Partzuergo publikoa ez, salatu eben.

Partzuergoaren aurrekontua handitzea "ezinbestekoa dala azpimarratzen dogu. Jokin Bildarratzek dauka giltzea gatazka honetan, horregaitik Hezkuntza Sailburua eta Haurreskolak Partzuergoko presidentea dan heinean jagokion erantzukizuna bete dagiala exijiduten deusagu" azaldu eben sindikatuak komunikadu baten.

## Etxeko Janaria Zure Etxean

Jandoniz Egoitzaren Zerbitzu Berria

**Betiko janarian zure extea**

Etxera eramateko janariaren zerbitzuak dieta orekatu eta osasuntsua eramaten laguntzen die gure nagusiei, etxean bertan. Karta-zerbitzua da; bazkaria, afaria edo biak eska daitezke astean nahi duzun beste egunetan, inolako konpromezurik gabe.

**Neurrira egindako dietak**

Askotariko menuak ditugu, testura ezberdinekin eta zure beharizanetara egokitutako dietak.

**Banatu baino askoz gehiago**

Banatzailak astean hiru aldiz bisita egiten dizunean iraugitze datak begiratuko ditu. Termosellatu bidez ibiltako orztietan banatzen da janaria, kalitate osoa bermatuz.

SARRERA  
PLATER NAGUSIA  
OSAGARRIA  
POSTREA  
OGIA  
**8,95€**  
BEZ-a barne

**1 BANAKETA**  
Eskaria aurreikusitako ordutegian helduko da

**2 BANATZAILE JATORRA**  
Banatzaileak aurretik utzitako janaria berraztertu eta eskari berria utziko dizu

**3 INFORMAZIOA**  
Ontziak nutrizio informazioarekin eta iraugitze datarekin etiketatuta daude

**4 KONTSERBAZIOA**  
Ontziak hozkailuan gorde behar dira kontsumo unera arte

**5 PRESTAKETA**  
Plastikoa zurlatu eta berotujanaria 3 minutuz mikrohuin labean

**GOGORATU!!!** Behin ontzia irekita, 24 orduko epean kontsumitu

JANDONIZ NAGUSIENTZAKO ETXEA  
JANDONIZ, 2 KALEA  
48390 BEDIA  
946313130  
INFO@RESIDENCIAPARAMAYORESJANDONIZ.ES







*Gabon zoriontsuak  
eta urte barri on!  
Zure ametsak egi bihurtu daitezala.*



**ARRATIAKO UDALEN  
MANKOMUNITATEA**

Elexalde Kalea, 49 / 48140 IGORRE / Tfnoa. 94 63117 17  
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org / [www.arratia.eus](http://www.arratia.eus)

*Gabon zoriontsuak  
eta  
urte barri on!*

**2021**



**IGORRE**  
Danon herria  
Danon dukera

**GABONAK**

# Olentzero, Mari Domingi eta Errege Magoak

COVID-19a ez hedatzeko hartutako neurriak baldintzatu egin dabez aurtengo Gabonetako egitarauak. Herritarrek ez dira kantetan batuko, ez da urte amaierako lasterketarik edo beste kirol probarik egongo eta Olentzero eta Mari Domingi edo Erregeak umeak egongo diran arren, formatu barriak asmatu dabez herrietan jente pilaketarik ez egoteko.

Ha-ta guzti be, aurrez aurre murriztutako aforoakaz hirurogei jarduera inguru antolatu ditue udalak eta herriko alkarteak Arratia, Ubide eta Zeberion. Aurten be, inoz baino beharrezkoagoa dan umeen ilusinoa biztuteko eta edade guztietakoen aisialdi eta kultura egarria asetzeko ahalegina egin dabe.

Gorbeialdek, Gabonaria izenpean, merkadu tradizionalak, baserriko produktuen azokak, antolatu ditu; Artean, hilaren 19an, Zeanurin 20an eta Zeberion 26an. Pandemia sasoian be, Gabonetako tradizioai eusteko.

**Erredakzinoa****Arantzazu****Abenduak 24, eguena**

12:00etan, Olentzero eta Mari Domingi ondo etorria plazan.

**Urtilak 3, domekea**

12:00etan, Ganso & Cía-ren *Babo Royal* kale antzerkia plazan (euria bada frontoian).

**Areatza****Abenduak 19, zapatua**

19:00etan, Arima hari laukotea-

ren kontzertua komentuan.

**Abenduak 20, domekea**

18:30ean, Deabru Beltzak-en *Olentzeroren gutunak* antzezlanak komentuan.

**Abenduak 24, eguena**

17:00etan, Olentzero eta Mari Domingi frontoian.

**Abenduak 26, zapatua**

18:00etan, zinea *Mr Link: Jatorri galdua* Udaletxeko Areto Nagusian.

**Abenduak 31, eguena**

Bakotxak gura dauanean Urrekoatxara. Zorionak eta urte barri on esanda bideoa edo argazkia 646 355 550 zenbakira bialdu.

**Urtilak 3, domekea**

18:30ean eta 20:00etan, Gatibu taldearen kontzertua komentuan.

**Artea****Abenduak 19, zapatua**

11:00etatik 14:00etara, merkadua frontoian.

**Abenduak 24, eguena**

18:00etatik 19:00etara, Mari Domingi eta Olentzero frontoian.

**Abenduak 30, eguaztena**

19:00etan, Goizargi Gospel Choir

abesbatza eleizan.

**Bedia****Abenduak 18, barikua**

16:30etik 19:30era, Gabonetako Postal Lehiaketako marrazkiak

batzeako azken eguna liburute-gian.

**Abenduak 19, zapatua**

13:45ean, urtekerea Izenaduba Mungiako parke mitologikora.



Zoriontasunez beteriko Gabonak opa deusueguz herritar guztiori, urtea ondo amaitu eta hurrengoa hobeto hasi.

Gabon  
zoriontsuak  
eta urte  
barri on!  
2021



Zeanuriko Udala

**Abenduak 21, 22 eta 23, astelehena, martitzena eta eguaztena**  
17:00etatik 19:00etara, Gabonetako tailerrak ludotekan.

**Abenduak 24, eguena**

13:00etan, Olentzerok eta Mari Domingik umeak hartuko dabez euren gutunak jasoteko plazan.

**Abenduak 29, martitzena**

17:00etatik 19:00etara, Txoko Bingo frontoian.

**Abenduak 30, eguaztena**

17:00etan, zinea *Mr Link: Jatorri galdua* ludotekan.

**Urtilak 4, astelehena**

17:00etan, Arriaga Antzokira ABAO txiki kontzertura.

**Urtilak 5, martitzena**

16:30ean, Errege Magoak Bedia umeak hartuko dabez

euren gutunak jasoteko plazan.

## Dima

### Abenduak 18, barikua

Irakurketa-bideo Lehiaketara bideoak bialtzeko atzen eguna [dimekoliburutegia@gmail.com](mailto:dimekoliburutegia@gmail.com) helbidera. Liburu bat laburbildu minutu bat eta hiru minutu tarteko bideo baten. Partaideen artean liburuetan gastetako 20 euroko bost bonu zozketatuko dira.

17:30ean, Tarana Karimegaz berbaldia, *Mugak gurutzatzen dituzten andrak* eskolako kamanan. Andraizeak antolatuta.

### Abenduak 19, zapatua

Andran parke ondoko errotondan Gabonetako zugatz morearen argiak iziotutea.

19:00etan, *Rapatean*, bertso-saio musikatu raperoa eskolako kamanan. Iñaki Viñaspre, Izar Mendiguren, Odei Barroso, Egoitz Zelaia eta DJ Eguren. Aurkezleak: Haritz Casabal eta Eñaut Gantxegi.

### Abenduak 24, eguena

12:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea frontoian.

### Abenduak 26, zapatua

18:00etan, Lari Produktzioak-en *Meri, Mari eta Lari* umeentzako antzerkia frontoian.

### Abenduak 29, martitzena

18:30ean, *Luze edo motz* Mirari Martiarena eta Idoia Torregarainen ikuskizuna eskolako kamanan.

### Abenduak 30, eguaztena

19:00etan, Txumuluxueta kultur alkartearen 25. urteurreneko ekitaldia eskolako kamanan.

## Igorre

### Abenduak 19, zapatua

19:00etan, Tanntaka Teatroa konpai-

niaren *Utzi zure mezua seinalearen ondoren* antzezlan Lasarte Aretoan.

### Abenduak 20, domekea

Olentzero eta Mari Domingiri gutuna eroateko mendi urtekerea IZ guraso alkarteak antolatuta; 16:30ean, zinea *Los Fixies contra los Crabots*; 18:45ean, *Erlauntza* Lasarte Aretoan.

### Abenduak 22, martitzena

19:30ean, Arratiako Musika Eskolako Gabonetako kontzertua Lasarte Aretoan.

### Abenduak 24, eguena

Goizez, badatoz Olentzero eta Mari Domingi saio desbardinak Lasarte Aretoan.

### Abenduak 26, zapatua

19:00etan, AMEk antolatuta, *Nudo* antzerkia eta ostean Gabonetako otzaren zozketea Lasarte Aretoan.

### Abenduak 27, domekea

16:30ean, zinea *Sin chan en Australia. Tras las esmeraldas verdes*; 18:45ean, *El año que dejamos de jugar* Lasarte Aretoan.

### Abenduak 29, martitzena

19:00etan, antzerkia *Zaldi urdina*.

### Urtailak 2, zapatua

18:00etan, antzerkia *Botadun katua* Lasarte Aretoan.



Zaldi urdina antzezlan Lasarte Aretoan.

### Urtailak 4, astelehena

19:00etan, Yllana konpainiaren *Greenpiss* antzerkia Lasarte Aretoan.

### Urtailak 5, martitzena

Erregenetako Kabalgata saio desbardinak arrastian Lasarte Aretoan.

## Lemoa

### Abenduak 22, martitzena

Gabonai hasikerea emoteko ikuskizun berezia Gaztetxean.

### Abenduak 24, eguena

Goizean, Olentzero eta Mari Domingi herriko kaleetan zehar; 17:00etan, Mari Domingiren istorioak eta Olentzeroren pasadizoak Udaleko plataforma digitalean.

### Abenduak 26, zapatua

Goizean mendi urtekerea Lemoatik. Gaztetxeak antolatuta.

19:00etan, Eñaut Elorrietaren *Irteera argiak* kontzertua kiroldegian.

### Abenduak 28 eta 29, astelehena eta martitzena

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, *Scape Room*-a kiroldegian. 4-12 urte bitartekoentzat. 18:30ean, Bocabeats komedia. Kulturgunean 8 eta 18 urte bitartekoentzat.

### Abenduak 28, astelehena

19:00etan, Dut taldeari buruzko Pa-

blo Salgado Mendez-en liburuaren aurkezpena Gaztetxean.

### Abenduak 29, martitzena

19:00etan, Saharako egoerearen inguruko dokumentala eta tertulia Gaztetxean.

### Abenduak 30, eguaztena

18:00etan, *Kattalinen abenturak* umeentzako ikuskizun musikala kiroldegian.

19:00etan, Larru-ren kontzertua Gaztetxean.

### Urtilak 3, domekea

Gaztetxeako altxorren enkantea.

### Urtilak 5, martitzena

19:00etan, Raust taldearen kontzertua Gaztetxean.

## Ubide

### Abenduak 19, zapatua

Olentzero, Mari Domingi eta Galzagorri umeen etxeetara joango dira eskutitzak jasoteko.

### Abenduak 24, eguena

Olentzero eta Mari Domingiri agurra.

## Zeanuri

### Abenduak 20, domekea

11:00etatik 14:00etara, azokea; 18:30ean, bertso-saioa Unai eta Eñaut Agirregaz, San Isidro eleizan.

### Abenduak 24, eguena

Olentzero herrian.

### Abenduak 26, zapatua

19:00etan, Izaroren *Limones en invierno* birako kontzertua frontoian.

### Abenduak 28, astelehena

18:30ean, Alex Txikonen *Mendi biluzia* pelikulea San Isidro eleizan.

### Abenduak 29, martitzena

18:30ean, Jakoba Errekondoren

konsultategia Kultur Etxean.

### Abenduak 31, eguena

10:00etan, Atoan-egaz Altunganara mendi urtekerea eta bueltan pintxo poteoa herriko tabernetatik.

### Urtilak 5, martitzena

18:00etan, 2 eta 10 urte bitartekoentzat eta 19:30ean, 10 urtetik gorakoentzat Asier Kidam magoa Kultur Etxean.

## Zeberio

### Abenduak 23, eguaztena

18:30ean, ipuin kontalaria Hogarrear.

### Abenduak 24, eguena

18:00etan, Olentzero eta Mari Domingi frontoian.

### Abenduak 26, zapatua

10:00etatik 14:00etara, azokea; 12:00etan, Tor magoaren *Amarru* ikuskizuna plazan.

### Abenduak 28, astelehena

11:00etan, rallya txikientzat frontoian.

### Abenduak 30, eguaztena

16:30ean, umeentzako kirol desbardinak egiteko gunea aterpean.

Kontzertu bi be egongo dira baina eguna zehaztea falta da. Beste ekintzaren bat be egon leiteke Gabonen inguruan.



2021  
Dimako Udalak  
opa deutesuez  
jai egun  
zoriontsuak eta  
urte barri on!!

Dimako Udala

Gugaz  
harremanetan  
ipinteko  
94 631 73 14  
eta  
649 979 112

Publizitatea:  
649 979 115

✉ [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
🌐 [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

GURE  
GARIA

GURE  
OGIA

# EUSKAL OGIA

GURE GARIA, GURE OGIA  
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN



EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN  
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA  
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN  
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

## LEMOA

BIZKARRA - Juan Bautista Eguskiza Meabe, 1

*Euskadi, auzolana, bien común*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## GUTARIKO BAKOTXAK GEURE ALDETIK BORONDATERIK EZ BADOGU IPINTEN, SEKULA BE EZ DOGU LORTUKO ARRATIA GARBI BAT

### Sarritan topetan doguz holango egoerak herrietan zoritxarrez!

Kontuan hartu Arratiako Udalen Mankomunitateak hainbat zerbitzu eskaintzen dauzala mota guztietako hondakinak bere lekura botateko.

- Tamaina handiko hondakinak batzeako zerbitzua (dobakoa). **94 631 17 17** telefonora deituta eta Mankomunitateak esaneko egun eta lekuan itxita.
- Igarreko Garbigunera eroan. Astelehenetik barikura 09:00-13:30 eta 15:30-18:00. Zapatuetan 09:00-13:00.
- Eukiontzi urdina (papera eta kartoia), marroia (materia organikoa), horia (ontziak), berdea (beira), zuria (berrerabilpenerako), grisa (errefusa), laranja (etxean erabilitako orioa), konpostagailua eta pilentzakoa daukazuz zeure eskura.



*Geure esku dago!*

**Bizkaia**  
egiten



**Arratia**  
"Bikain Guztia"



**ANDRAMARI** ZORNOTZAKO IKASTOLA

"Biharko Euskaldun prestatu eta arduratsuak hezten"

**0-18** urtera arte

\* Ikastolako sukaldean prestatutako produktu ekologikoak, bertokoak eta sasoikoak.

\* Garraioa: Usansolo, Bedia, Lemoa, Igarre eta Zornotza.

\* Matrikula urte osoan zabalik.



## PELOTEA

## Amaia Alday dimoztarrak Binakako Master Laboral Kutxa Txapelketako finala jokatuko dau

### Erredakzioa

Amaia Alday eta Oihane Orbeozok Patri Espinar eta Naroa Agirre izango ditue aurkari abenduaren 20an Arrigorriagan jokatuko dan finalean.

Finalerdiak abenduaren 6an jokatuko ziran Derion. Olatz Arribabalaga eta Gentzane Aldairi nagusitu jakien Alday eta Orbeozok 12-22. Partiduak zati desbardin bi izan ebazan, hasieran orekatua eta lehiatua, baina gero dimoztarrak eta azpeitiarrak agindu eben partiduan. Hamabinako bardinketara arte, markagailua estu joan zan eta ez bikote batek ez besteak ezin izan eban alde

egin. Baina bardinketa horretatik aurrera, Amaia Alday min egin eban bere sakeagaz eta partidua irabaztea lortu eben.

Bigarren finalerdian Patri Espi-

nar eta Naroa Agirre sailkatu ziran finalerako. Aurrez aurre Txumulueta Pelota Klubeko Ainhoa Ruiz de Infante eta Miriam Arrillaga izan ebezan, baina Espinar eta Agirre gailendu ziran 18-22. Partidua gorabeheratsua izan zan eta Espinarrek eta Agirrek asko sufridu behar izan eben irabazteko. Izan be, hasieran 6-14 aurreratu baziran be, aurrea hartzea be lortu eben Ruiz de Infante eta Arrillagak. Dana dala, barriro be partiduari buelta emotea lortu eben Espinar eta Agirrek eta atzen zortzi tantuak jarraian egin ebezan, finalerako txartela lortuz.



## TAEKWONDOA

## Andoni Cintado Europako txapel-dunorde

### Erredakzioa

Abenduaren 10ean jokatuko ziran olinpikoetako Europako Txapelketara Sarajevon (Bosnia-Herzegovina) eta zeberioztarrak zidarrezko dominea lortu eban 80 kilo baino gitxiagoko kategorian. Cintado Espainiako txapel-duna da bere pisuan.

Europako Txapelketan, Txekia, Espainia (Joko Olinpikoetarako sailkatuta dagoana) eta Eslove-

niako aurkariak kanporatu ebezan zeberioztarrak. Finalerdietan Partik Divkovic kroaziarrari irabazi ostean,

finalerako sailkatu zan. Finalean, Julio Ferreira portugaldarra nagusitu jakon Europako lehian.



## AZKOREA

## Atutxa seigarren Sherpa.ai Aizkolari Txapelketan

### Erredakzioa

Iker Vicente igazko txapel-dunak eroan eban txapela abenduaren 13an, Bilbao Arenan Sherpa.ai Txapelketa Nagusiko finalean. Mikel Larrañagak eta Eneko Otañok oso-

tu eben podiuma. Aitzol Atutxak Euskal Herriko bost txapel izan arren, atzena geratu zan.

Publikoaren aurrean jokatzeak atzeratu bazan be, atzenean, publiko barik jokatuko zan Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiko finala.



## PELOTEA

## Elezkano lau t'erdikotik kanpo

### Erredakzioa

Abenduaren 12an, Altuna III.aren kontra 22-14 galdu ostean, Lau t'erdiko Txapelketatik kanpo geratu da Danel Elezkano. Bilboko Bizkaia frontoian jokatuko zan finalerdietarako pasea, publiko barik.

Aurretik joan zan Elezkano hasieran eta markagailua 1-9 ipintera heldu zan. Baina gero Altunak 9-9 bardindutea lortu eban eta barriro be 11-11 bardindu ostean, aurrea hartu eutsan Elezkanori amaierako 22-14 hori lortu arte.

Altunak Oinatz Bengoetxea izango dau aurkari finalerdietan.

## FUTBOLA

## Partidurik irabazi barik

### Erredakzioa

Arratia andrazkoen A taldeak 3 partidua jokatuko ditu abenduan, eurretako bat atzeratutakoa.

Abenduaren 6an Real Sociedad B liderraren kontra jokatuko eban Arratiak eta 0-2 galdu eban. Abenduaren 8an ostera, atzeratuta eukan Bizkerre taldearen kontrako partidua jokatuko eben

arratiarrak etxean eta huts eta hiru galdu eben. Hilaren 13an San Ignacioren kontra 2-0 galdu eben ostera.

Datorren partidua hilaren 19an, 17:00etan jokatuko dau Arratiak Igorreko Urbieta zelaian Aurrera de Vitoria taldearen kontra.

Arratia, sei jardunaldiren ostean atzen postuan dago sailkapenean puntu bakarragaz.



Hilaren 5ean Real Sociedad B taldearen kontra jokatutako partidua.

EROSKETAK  
**%20**  
MERKEAGO

**AREATZA BONO DENDA**

ORBURU

ORAINGOAN, EROSI ETA GASTATU ALDI BEREAN

**Abenduaren 11tik bonoak amaitu arte**

AREATZAKO MERKATARIAREN ELKARTEA  
ASOCIACION DE COMERCIANTES DE AREATZA

Areatzak Udaia Ayuntamiento de Areatza

## LASTO ALTXATZEA

### Andrazkoen Lehenengo Lasto Altxatze Txapelketa jokatu da



Ruth Linaza.

#### Erredakzinoa

Zemendiaren 29an, jokatu zan Lehenengo Lasto Altxatze Txapelketa ofiziala Arabako Erdoñana herrian. Kirolari bi lehiatu ziran txapela lortzeko; biak, Badaiotz sokatira taldekoak: Ruth Linaza lemoaztarra eta Garbiñe Lopez Uralde, hain zuzen be. Txapela Lopez Uraldek jantzi eban, 30 altxaldi egin ostean. Linazak 22 egin ebazan.

Egin beharrekoa, 30 kiloko lasto fardoa, 5 metroko altuerara altxatea zan, eta minutu bitan altxaldi gehien egiten ebana izango zan txapelduna. "Ez neban egun ona euki, nahiz eta marka ona egin. Igaz 19 jasoaldi egin nebazan eta aurten 22, baina pozik nago" adierazo deutso Li-

nazak BEGITURI.

#### Ametsa beteta

Ametsa bete dau lemoaztarrak. Aprilaren 1ean argitaratutako alkarrizketan, Linazak aitortu eutsan BEGITURI Euskal Herriko Lasto Altxatze Lehen Txapelketa ofiziala antolatzea bere erronka personala zala. "Kirol arlo personalean erronka bat, Euskal Herriko Lasto Altxatze Lehen Txapelketa ofiziala antolatzeko gai izatea, aurten bada hobeto".

Txapela ez dau lortu, baina horretarako lehiatu izanak lehenengo txapelketa ofizialean, txapelak beste balio dau Lemoako kirolariarentzat. Laguna da Garbiñe Lopez eta bien erronka zan txapelketa ofiziala lortzea. "Emon dogu lehen pausua" dino Linazak.

## AZKOREA

### Aitzol Atutxa: "Publiko barrira ailegetea da helburuetako bat, oin artekoa galdu barik"

Euskal Herriko Herri Kirol Federazioagaz eukien desadostasunak dirala-eta, hogeitazkolarik alkarte bat sortu eben urrietan azkolaritza bultzatzeko. Atutxak emon eutsan alkartearen barri BEGITURI abenduaren 2an.

#### Erredakzinoa

##### Zergaitik sortu zan alkarte?

Alkartearen idea aspalditik dator, baina aurtengo udan ebatzi dogu pausua aurrera emotea. Euskal Herri osoko 20 azkolarari onenak osotuten dogu alkarte. Helburua azkolaritzaaren etorkizuna bermatzea eta bultzatzea da.

Gauza barria da oindino, idea asko buruan baina pausuz pausu joan gura dogu. Momentuz aurtengo txapelketa egin gura dogu eta hau pasautakoan datorren urtekoari forma emoten hasi.

##### Sherpa.ai Aizkolarari Txapelketa Nagusia dauka izena aurten antolatu dozuena. Sherpa.ai enpresa izan da babeslea?

Sherpa.ai inteligentzia artifizialeko Bilboko enpresa bat da Europa mailan liderra dana.

Gure babeslea da eta berari esker da posible hau aurrera eroatea, horregaitik aurtengo txapelketari ipini deusagu Sherpa.ai Aizkolarari Txapelketa Nagusia izena.

##### Txapelketari jagokienean, zuen txapelketan parte hartzeako alkarteko kide izan behar da?

##### ala ez da derrigorrezkoa?

Holan da momentuz, aurtengoan holan izan da, baina etorkizunean beste kirol batzuetako lehiaketa askotan egoten diran legez, konbidapenak be egon daitezke.

##### Federazioak antolatutako txapelketetan edo erakustaldietan parte hartu leikie zuen alkartekoak? Eta udalak eta beste erakundeak antolatu-

##### takoetan?

Bai, jakina. Alkarte danon onerako dan batasun bat da. Guztiok batzean gaituan leku bat, non momentuz Aizkolarari Txapelketa Nagusia antolatuteko ardura hartu dauan.

**Txapelketa antolatu dozue, baina koronabirusa dala-eta atzeratu behar izan da finala. Izan be, zuen helburuen artean, publikoagaz harreman estuagoa bultzatzea da. Ezin bada finala publikoagaz jokatu abenduaren 13an, atzeratuko dozue barriro?**

Gure idea nagusia txapelketa duin bat osotutea da, aurten horretarako baldintza egokienak emoten ez badira be. Atzerapenagaz, (hasieran zemendiaren 29an zan jokatzekoa) publiko etorri ahal izateko ahalegina egin dogu. Bestalde EITBgaz hitzarmena sinatu dogu eta telebistak zuzenean emongo dau finala. Ezer larririk pasetan ez bada abenduaren 13an izango da. **Zein da oin arte egin dozuena? Ze eragin izan dau lan horretan koronabirusa ez hedatzeko erakundeak hartutako neurriak?**

Oin arteko lana, gaxena eta erra-



zena izan da era berean. Danak alkarregaz egotea da. Normalean oso gatxa da hori eta guri oso erraza egin jaku. Txapelketa antolatzeko garaian oztopo ugari izan doguz, ate asko zarratu deuskuez eta beste kalte batzuk koronabirusak eragindakoak izan dira. Baina Sherpa.ai-ko lagunai esker, hau dana, posible izango da.

##### Alkarte barria da, pentsetan dot, sasoi latzak bizi doguzan arren, ilusinoa mantenduko dozuela. Epe ertain eta luzean zeintzuk dira zuen espektatibak?

Aurtengoa oso gogorra izan da. Baina ilusinoa topera daukagu. Azkolaritza publiko barri bategana heltzea da helburuetako bat, oin artekoa galdu barik. Horretarako txapelketa barritzaileak egitea da asmoa, sare sozialetan presentzia izatea, web orrialde eraberritu bat, eta abar.

## ANTZERKIA

Lau andrazkoren  
ahotsak erantzungailu  
automatikoan

## Erredakzioa

Tantaka Teatroa konpainiak *Utzi zure mezua seinalearen ondoren* lana antzetzuko dau, abenduaren 19an, 19:00etan, Lasarte Aretoan.

Fernando Bernuesen zuzendaritzapean, Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Oihana Maritorea eta Leire Ruizek, Arantza Portabalesen lanaren protagonistai emongo deutsee ahotsa.

## Lau istorio

Erantzungailuan itxitako mezuak, personaia bakotzak bere istorioa kontetan dau. Izan be, Marinak, Carmelak, Sarak eta Vivianak, bizi dituen arazoai aurre egin ezin eta gertatzen jakiena erantzungailu automatikoari aitortuten deustie. Marina abogadua da, dibortzioetan trebatua eta bere senarrak itxi egin dau. Carmelak minbizia dauka eta se-



meari agurra emon gura deutso. Sara familia oneko gaztea da eta ezkondu aurreko presinoak bere buruaz beste egiteko egoeran ipini dau eta Viviana prostituta da Madrilan eta bere familiak lkean egiten dauala behar uste dau.

## IKUSKIZUNA

Luze edo motz umorezko  
ikuskitzuna Diman

## Erredakzioa

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarainen lan barria abenduaren 29an, 18:30ean, ikusteko aukerea egongo da eskolako kamanan Andraizeak antolatuta.

Aste batzuk lehenago be egon ziran Arratian, Martiarena eta Torregarai *Bakean dagoena*

*bakean utzi* euren beste lanagaz. Formatu bardinagaz umorezko "binakako bakarriketak", baina gai desbardinak jorratzen ditue lan honetan. Izan be, aurrekoaren ildoari jarraitu arren, "andren gauzetan" sakondu egiten dabe. Euskerea, andrak eta umorea hiru erpineko triangelua osotuz.

## MUSIKEA

Izaroren kontzertua Zeanuriko  
frontoian hilaren 26an

## Erredakzioa

Izaro Andres abeslari mallabiztarrak, *Limones en invierno* bere hirugarren diskoa aurkezteko biran, kontzertua emongo dau Zeanurin hilaren 26an, 19:00etan, frontoian. Sarrerea udaletxean erosi behar da (20 euro). Zeanuriztarrak hilaren 16ra arte erosi leikie sarrerok eta 17tik aurrera Zeanurikoak ez diranak.



eben. Urri bigarrenaren 15ean ekin eutsan atzeratutako birari eta hamalau herri eta uritan kantau ondoren, Zeanuriko frontoian joko dauz disko barriko kantauak.

## URTEURRENA

Txumuluxueta Kultur  
Alkarteak 25 urte bete ditu

1995eko udan, Dimako sei lagun batu ziran herrian kultur alkarte bat sortzeako gogoz.

## Erredakzioa

Helburua zan alkarte baten bakesa emotea egiten ziran ekintza kulturalai. Izan be, Diman egin, egiten ziran kultura ekintzak, baina ekimena norbanakoen ize-nean izaten zan eta horrek babes faltea ekarten eban. Babes hori emoteko eta erantzukizuna modu kolektiboan hartzeako sortu zan Txumuluxueta Kultur Alkartea.

Mende laurena ospatuteko, abenduaren 30ean, ekitaldia egingo dabe herriko eskolako kamanan 19:00etan. Ekitaldiak alderdi bi izango ditu: lehenengo alkartearen historia labur edo ibilbide historikoaren laburpen bat aurkeztuko da eta ostean mahai-inguru bat egingo da herriko alkarteakaz. Horretarako herriko alkarte guztiak dagoz konbidautu parte hartzera. Herrian kultureak bizi dauan egoerearen gaineko hausnarketea egingo da bertan eta alkarte bako-tzak bere ikusmoldea erakusteko aukerea izango dau.

## Historia

Lehenengo urteetan gogor hasi zan Txumuluxueta, ekimen asko eta era desbardinetakoak bideratuz: berbaldiak, ikastaroak, mendi urtekerak, herriko bazterrak ezetuteko ekintzak, txapelketa

## MUSIKEA

Gatibu  
Areatzan

## Erredakzioa

Urtilaren 3an, Gabonetako egitarauaren barruan, Gatibuk kontzertu bi emongo ditu modu akustikoan; bata 18:30ean eta bestea, 20:00etan Areatzako komentuan. *Musikak salbatuko gaitu da* taldearen atzen diskoa, labetik atera barria, abenduaren 4an argitaratu eben eta kantu barri horreek joko ditue Areatzan. Izena internet bidez edo udaletxera deituta emon behar da eta 14-30 urte bitarteko bilaroztarrak eukiko dabe lehen-tasuna.

Abenduaren 4an bertan hasi ziran Gernikakoak Euskal Herri-tik zehar kontzertuak emoten

eta lehiaketak helduakaz eta umeakaz... Txumuluxueta alkarteak modu zabalean ulertzen dau kulturea eta beraren alde diferenteak landu izan dauz bere historian zehar. Sarri pasatzen da loraldien ostean zelan edo halango "loaldia" be ezetutea; Txumuluxueta alkarteak be ezetu dau holangorik.

Azken urteotan barriro hasi da bizkortuten eta berrindartuten. Ekimen bitan ipini dabez indarrak: *Jentilak Diman* ekimenean eta Dimako Memoria Historikoa landuten. *Jentilak Diman*, mitologia herritarren eskura ipinteko ekimena, 2015ean sortu zan eta huts egin barik urtero-urtero antolatu dabe, aurtengo urtean izan ezik, COVID-19aren inguruko neurriak ezinezko bihurtu dabelako. Memoria Historikoa 1936ko gerrak herrian sortutako kalteak



diskoa ezetuten emoteko. "Musikari gehien antzera, geuk be ahalegin artistiko eta ekonomiko handia egin dogu kantu barriak sortu, diskoa ondu eta ahalik eta zale gehienakaz partekatzeko. Konfinamentu perimetralaren debekuean, herri askotatik salbuespenez baino atera ezinik, aurrez aurreko Durangoko Azoka barik, zelan biztu geinken guretzat sutondoko beroa zarien zaleok emoten deuskuzuen sua? Zuek ezin badozue guregan hurbildu, geu hurbilduko gara zuenganaino" dinoe Facebook-ean.

## Gatibu

Gatibu, bizkaieraz kantetan dauan Gernika-Lumoko taldea da, 2000 urtean sortu zan eta harrezkerotik zortzi disko kaleratu ditu *Zoramena* (2002) eta *Disko infernu* (2005) diskoen ostetik, *Laino Guztien Gainetik*, *Sasi Guztien Azpitik* (2008) argitaratu eben. Disko honek indartu egin

eta bizitako egoerea aztertu eta herritarrai erakusteko ekimena da. "Bide horretan berbaldiak, gerreak kaltetuai egindako omendaldiak egin dira eta bidean da Dimako Udala eta EHUren arteko hitzarmen bat artearen bidez memoriaren lanketari beste arpegi bat ipinteko, danon ekarpenak osotzeko eta aberasteko".

Herrian beste alkarte batzuk be joan dira sortuten eta oin aukera gehiago dago kulturaren ekiteko eta sortuteko lehen baino. Horreetako batzuk helburu konkretuago edo espezifikagoakaz, beharri-zan zehatz batzuk eraginda, jaijo dira, halan holan andrazkoren eta gizonezkoen arteko bardintasuna lortuteko Andraizea edo euskal jantzak erakusteko Gazte Barri alkarteak, kasu bi aitatutearren. Txumuluxueta alkartetik banandu dan Txumuluxueta Pelota Klub-a da horreetako beste bat, herrian pelotearen garapenez arduratzen dana.

## Hausnarketea

Txumuluxueta alkartekoak urteurrena aprobetxau gura dabe Dimako beste alkarteakaz batera kultura lokalaren gainean hausnarketea egiteko. Hori dala-eta, eratu dabe mahai-ingurua. Mahai-inguru horretara herriko gainerako kultura alkarte guztiak konbidatu dabe eta 10 bat alkarte eta taldek parte hartuko dabe. "Egiten diran ekintza zehatzen gaineko irakurketea eginaz, zein kultura mota landuten gabilzan aztertzea da kontua. Mahai-inguru hau lehen urrats modura ulertzen dogu, gurako geunke kultura lokalari dimensino zabalagoa emotea, hor daukagu apustua" dinoe Txumuluxuetakoak.



eban Gatiburen lekua euskal talde arrakastatsuen artean. Disko onenaren eta kantu onenaren (*Bang-bang txik-txiki bang bang*) Gaztea Sariak irabazi ebezan lan honeguz. Ondoren, *Zuzenean bizitzeko gogoa* (2010), *Zazpi kantoietan* (2012), *Euritan dantzan* (2014), *Aske maitte, aske bizi* (2016) eta *Azken indioak* (2018) kaleratu ebezan.

Gatiburen kantu erritmiko eta itsaskorrek erraz ipinten dabe jentea jantzan eta kontzertuetarako sarrerak agortu egiten dira. Gaur egungo neurriakaz, komentuko kapileak 75 laguneko aforoa dauka.



## MUSIKEA

### Eñaut Elorrietaren kontzertua Lemoan



netan eta heriotzea, maitasuna eta zaugarritasuna lango gaiak tratatzen ditu. Musika erritmiko eta melodiko ederrari lagunduteko, kantu batzuen hitzak Elorrietak berak egin baditu be, badagoz beste batzuk Uxue Alberdi, Joseba Sarrionandia, Bernardo Atxaga eta Jose Luis Otamendi idazleenak diranak be.

#### Erredakzinoa

Hilaren 26an, Eñaut Elorrietak *Irteera argiak* bere bakarkako bigarren diskoaren kantuak joko ditu Lemoako kiroldegian. Bere diskorik personalena da eta atzen urteotan bizi izandakoak kontetan ditu bertan. 150 lagunentzako lekua egongo da eta izena [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) helbidean emon daiteke hilaren 16ra arte.

Bederatzi kantu dagoz disko ho-

#### Eñaut Elorrieta

Eñaut Elorrieta Ken Zazpi talderen sortzaileetako bat izan zan, Jon Mikel Arronategigaz batera 1996an. Ken Zazpi taldeak urte askotako ibilbide luzean, 9 disko kaleratu eban. Ezagunen artean, *Bidean* edo *Ortzemugak begietan*. Euskadiko Orkestra Sinfonikoagaz grabau eben disko bat 2013an.

Urte berean, Elorrietak bakarkako bere lehen diskoa *Deserriko kantak* kaleratu eban.

## KULTUREA

### Rapatean bertso-saioa eta umeentzako antzerkia Diman

#### Erredakzinoa

Jairik egon ez arren, herrietako jai batzorde batzuek ekin deusie aisialdiko ekintzak prestatzeari. Dimakoak ekintza bi prestatu ditu hamabostaldi honetarako: hilaren 19an, *Rapatean* bertso-saio musikatua eta 26an, *Meri, Mari eta Lari* umeentzako antzerkia. Bertso saioko aforoa bermatzeko izena emon behar da 655 095

727 telefonoan.

Rap musikea eta bertso ikuskizuna emongo dabe DJ Eguren eta lau bertsolari raperok. Iñaki Viñaspre, Izar Mendiguren, Odei barroso eta Egoitz Zelaia dira rap musikearen erritmoan bertsoak botako dabezan bertsolariak. Ikuskizuna eskolako kamaran izango da 19:00etan.

Hilaren 26an, 18:00etan, Maria Urcelayk eta Yogurinha Borovak, Galder Perezzen *Meri,*

*Mari eta Lari* antzeztuko dabe frontoian. Ipuin eta kantuz osotutako antzezlana da. Ipuinak sexu eta genero aniztasunaz dihardue, familia eredu desbardinenez, bildurrak bazterteaz eta askatasunaz. Ikuskizuneko abestiak Yogurinha Borovarenak dira.



## LIBURUA

### Karmelo Uriartek "Ederriko". Kontau behar dot izenagaz bere biografia kaleratu dau

#### Erredakzinoa

Labayru Fundazioak argitaratu dau eta liburuaren aurkezpena zemendiaren 30ean izan zan Amorebieta-Etxanon. Egileagaz batera Xabier Amuriza eta Adolfo Arejita egon ziran. BEGITU argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak emon dau laguntzatxoa liburuak argia ikusi ahal izateko. Karmelo Uriarte Zertuko kide be bada.

Liburuak, Uriarteren bizitzearen barri emoten dau, baina "mikro-

historia hori, gure herriaren historia osotuteko zati garrantzitsua be bada, danon artean egituratzen dogulako gizartea". Egilearen



Xabier Amuriza, Karmelo Uriarte eta Adolfo Arejita.

arabera, irakurle asko sentiduko dira identifikata "personen esentzia ez dalako hainbeste aldatzen belaunaldirik belaunaldira".

#### Arratia eszenaleku

Beobideko baserriko bizimodutik hasita, Uriarteren biografia Arratia eskualdean gertatzen da. Batz kooperatibako behargina, mendizalea, bertsozalea eta euskalzalea, egileak familia, lagunak eta lankideak aisialdia eta beharra, eta koruko kideak, herri antzeztetan eta jaietan bizi izandakoak kontetan ditu.

## KULTUREA

### Lasarte Aretoak bazkide izateko kanpaina abiatu dau

#### Erredakzinoa

Bazkide izateko urteroko kanpaina ipini dabe martxan Lasarte Aretoan. Bazkide txartela, 25 euroren truke, 5 euro merkeago, egin edo barriztu daiteke urtailaren 8ra arte. Horretarako, Kultur Etxeko harrerara deitu behar da zitea eskatuteko, goi-

zeko 09:00etatik 14:00etara bitartean.

Txartelagaz urteko ikuskizun guztietan %25eko deskontua izaten da, eta zuzeneko ikuskizun bat eta lau pelikula debalde izaten dira. Euskal Antzoki Sareako antzoki guztietan be deskontuak egiten ditue Lasarte Aretoko bazkide txartelagaz.

## DUNBA

### Gure ortua

#### Arteako eskolako 3. zikloko ikasleak

Aurten ezin izan doguzanez gauza asko egin, koronabirusaren egoera dala eta, ortu bat egitea pentsau edo bururatu jaku. Horretarako honako pausu honek jarraitu doguz:

1.-Ortua egiteko leku egokia aukeratu.

Eskolako sarrerako lorategian kokatu dogu, alde batetik eguzkiak egun guztian jotzen daualako, eta bestetik, leku asko dagoalako.

2.-Materiala lortu eta bildu.

35 metro ohol, lurra, konposta, kartoiak, lanerako tresnak...

Oholak lortzeako, gutun bat



idatzi eta gutuna udaletxera eroan genduan. Hortik egun batzuetara Udaletik erantzuna jaso genduan

eta oholak ekarri euskuezan.

Konposta, oin dala urte bi eskolan egindakoa erabili dogu baina

ez da nahikoa izan eta gehiago eskatu behar izan dogu.

Lurra eskatzerako orduan, arazo bat suertau jakun: zenbat lur eskatu edo erosi behar dogu? Hau kalkuletako matematika saioak erabili doguz. Lehenengo, ortuaren azalera kalkulau eta altuerarekin genduzan. Ondoren, bolumenaren formula atera genduan eta holan lortu genduan jakitea zenbat lur behar zan. Hau da, edukierarekin beteteko zenbat m<sup>3</sup> lur eskatu.

3.- Lurra botaten hasi ginanean lur gehiago falta zala konturatu ginan, beraz, gure gelako lagun baten baserrira joango gara falta jakun luraren bila.

Hemen gagoz Arteako 3. zikloko ikasleak lan eta lan gure ortuagaz, animauta, poz-pezik eta

gure ortuko produktuak biltzeako gogoz.





# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktatu zenbakia: 666 125 725.

### PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzian. Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

### ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deutsu; horretarako, plan personalizaua egingo deutsu heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: [narao\\_esparza@hotmail.com](mailto:narao_esparza@hotmail.com) (lehen hitzordua doban).

**Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako sarrera bina **Utzi zure mezua seinalearen ondoren antzezlanerako.**

Maitane Diez (Areatza)  
Axular Kultur Elkartea (Igorre)



**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**umean moda**  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [seimoda@hotmail.com](mailto:seimoda@hotmail.com)

**Kepa Intxausti**  
TAXI ZERBITZUA  
609421222  
IGORRE

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**begitu**

**NAIARA** Hartz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
04 631 52 26

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3 - 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-40-54

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TEL. 94 631 92 00

**Orrie**  
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA  
L. Agirre, 2  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK:  
AUTOAK  
ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA:  
LAN ZUZENBIDEA  
ZERGAK  
KONTABILITATEA  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

Gugaz harremanetan ipinteko  
Publizitatea:  
649 979 115  
**begitu**  
94 631 73 14  
eta  
649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

# begitu

arratia  
ubide  
zeberio

## BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

### 2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAWKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartek, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Hori egitegaitik **Garena** jatebixean lagun birentzako degustazino menua zozketatuko dogu abenduan.

\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkartea** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€  15€

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke **Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!**

LEHOA  
946 31 44 06  
ZABAL@ALKIZABAL.NET

## ALKIZABAL

LEHOA - BASAURI  
[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

BASAURI  
946 31 03 99  
BASAURI@ALKIZABAL.NET

### MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

**LAGUNTZAILEA**

**BIZKAIFISIOS**  
Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 55 08  
[igorre@bizkaifisios.com](mailto:igorre@bizkaifisios.com)

**ANDRA  
MARI  
KLINKEA**  
Pontzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
[galdakao@bizkaifisios.com](mailto:galdakao@bizkaifisios.com)

Laster zentro berria  
**POLICLINICA DURANGON**  
(Intxaurren kalea, 19)

Jarrai gaitzazu Instagramen @bizkaifisios

Aurten inoiz baino gehiago  
oparitu osasuna!

Gabonetan oparitu Bizkaifisiosen bonuak

Saio bat 39 euro  
Hiru saio 110 euro

Kanpaina berezia jubilatuentzat, Arratiako Egoitzako langileentzat, eta abar: 30€/saioa  
•Aseguru desberdinak dituzten pazienteak modu pribatuan badatoz (IMQ, Sanitas, Lagun Aro...)

Urtarrilaren 10era arte salgai!

Bizkaifisios®

Zorionak eta urte berri on!